

GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

167. INFORMAZIO BULETINA

> 2021ko iraila

GIPUZKOA

> Foru Aldundiak Gipuzkoa Deep Demonstration, lurraldea trantsizio ekologikoko proiektu pilotu bihurtzen duena aurkeztu zuen, EBko Klima Berriztatzeko eta Ezagutzeko Climate-KIC Lankidegoaren eta beste eragile batzuen eskutik

Kirsten Dunlop Klima Aldaketaren aurkako Europar Batasuneko Klima Sarearen (Climate-KIC'en) zuzendariak Gipuzkoa bisitatu zuen eta aurkezpenean parte hartu zuen.

Gipuzkoa laborategi handi bat bihurtuko da klima-aldaketaren aurkako trantsizio ekologikoaren eredu gisa. Aldundiak Etorkizuna Eraikiz estrategiaren barruan kokatu du proiektua.

Ekimenean Eusko Jaurlaritzak eta ELGAk (Ekonomia, Lankidetza eta Garapenerako Antolakundea) parte hartuko dute. Eusko Jaurlaritzaren eskutik, IHOBE ingurumen-agentziak ere parte hartzen du. Koordinazio-zentro gisa Lehendakari Aguirre Center, Arantzazulab edo Debagoiena 2030 gehitzen dira.

Aurkezpenarekin batera, mugikortasun jasangarri berrirako MUBIL Gipuzkoako beste ingurumen-proiektu handi batera bisita egin zen. MUBIL edo Arantzazulabekin batera, Etorkizuna Eraikiz estrategiako gainerako erreferentzia-zentroek parte hartuko dute Gipuzkoa Deep Demonstration ekimenean. BRTA ikerketa eta teknologiako euskal aliantza ere bai.

Proiektuak bat egiten du deskarbonizazio handiagoko eta desberdintasun sozial txikiagoko Gipuzkoa eta Euskadiren estrategiekin. « Gipuzkoa handinahikoa da, eta Europako abangoardia bihurtu nahi dugu », esan zuen Markel Olano ahaldun nagusiak. Arantxa Tapiak, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuak, ekimena Europako Itun Berdean inspiratutako Euskal Itun Berdearekin (Basque Green Deal) lotu zuen.

José Ignacio Asensio Ingurumeneko foru diputatuak Europako funtsak eskuratu nahi dituen eta klima-aldaketaren aurkako borrokari lotuta dagoen beste proiektu bat aipatu zuen: hidrogenoaren korridorea, zeinean Zubietako hidrogeno berdea fabrikatzeko planta zati bat baita.

(informazio +)

> Ahaldun nagusiak neurriak eskatu zizkien EB eta estatuei Bidasoan hildakoaren moduko migratzaileek bizia ez arriskatzeko, “Gipuzkoa Covid-19 ostean” ikastaroan, non Sami Naïr-ek ere EBari buruzko hausnarketak egin baitzituen

“COVID-19aren osteko Gipuzkoa: balantzea” ikastaroari hasiera emateko hitzaldian, Markel Olanok migrazioen auziari begiratu zion, eta "mina eta haserrea" azaldu zuen abuztuan Bidasoa ibaian gazte bat hil zelako. "Euskaldunok badakigu zer den emigratzea, pobreziatik, jazarpenetik edo gerratik ihesi", gogorarazi du, eta "egiturazko neurriak" eskatu dizkie Europari eta Europar Batasuna osatzen duten estatuei, inork bere bizitza arriskuan jar ez dezan, "Ez Bidasoan, ez Mediterraneoan, ez beste inon".

Irekieraren ondoren, Sami Naïrrek inaugurazio-hitzaldia eman du. Jatorri aljeriarreko politikari eta pentsalari frantziarra (1946), immigrazio gaietan Europako aditu ospetsuenetako bat bezala nabarmendu da, baita Frantziako gobernuaren aholkulari ere populazio mugimendu hauekin lotutako politiketan. Sorbonako Unibertsitatean Filosofia eta Letretan eta Humanitateetan doktorea, gaur egun Zientzia Politikoetan katedraduna eta Sevillako Pablo Olavide Unibertsitateko Mediterraneo Andalusí zentroko zuzendaria da.

Pentsalari frantziarrak honela definitu du pandemia: « Giza zibilizaziorako une historikoa da, lehen aldiz herri guztiek arazo komun bati aurre egiten diotelako ». "Gaixotasunean elkartutako gizateriaren irudia ematen digu", adierazi du. Hala ere, adierazi duenez, egungo gizarteek aurre egin behar dieten arazoak ez datoz soilik pandemiatik, baizik eta sustrai sakonagoak dituzte, eta zerikusi handia dute Europako eta mundu osoko demokrazien bilakaerarekin; izan ere, zalantzan daude ez sistema alternatiboak daudelako, baizik eta beren bilakaerarengatik.

Bere ustez, errealitate horren aurrean, etorkizunean funtsezkoa izango da inbertsio publikoa handitzea, baita Europa mailan enplegua sustatzeko bultzada politika handi bat ere. « Tokiko gobernuek estuki lotu behar dute herritarrekin, eta erakutsi behar dute demokrazia aurrerapenerako tresna dela pertsona guztientzat, ekonomia berdearen eta enpleguaren aldeko apustu argiarekin », amaitu du.

(informazio +)

> Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak protokolo bat sinatu dute Teknologia Kuantikoen Poloa sustatzeko, barneratuz Quantum proiektua, Next Generation EU-ren erresilientzia-funts europarren finantzaketarako aurkeztutakoa

Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak jarduera-protokolo orokor bat sinatu dute, Gipuzkoan Teknologia Kuantikoen Polo baten garapena elkarrekin bultzatzeko.

Bi erakundeek dagoeneko urratsak eman dituzte norabide horretan, eta horiek lankidetzaren babesean indartu egingo dira. Mugarri horietako bat Gipuzkoako Foru Aldundiak Etorkizuna Eraikizen barruan bultzatzen duen Gipuzkoa Quantum proiektua da, Donostia International Physics Center BERC-aren eta Multiverse Computing enpresaren eskutik, teknologia horiei lotutako ikerketa- eta enpresa-esparruetako erreferentziazko bi aktore, hurrenez hurren. Gipuzkoa Quantum'ek teknologia kuantikoetan enpresen berrikuntza eta garapenerako Hub edo topagune bihurtu nahi du lurraldea.

Next Generation EU berreskurapen eta erresilientzia funtserako Euskadi Next programak jasotako ekonomia publiko eta pribatuaren berreskurapenerako eta eraldaketarako 16 proiektu estrategikoetako bat da Gipuzkoa Quantum, 750.000 milioi eurokoa.

Gainera, Eusko Jaurlaritzak IKUR 2030 estrategia jarri du abian bikaintasuneko ikerketaren esparruan, Euskadiko zientzia-sarea indartzeko eta nitxo zehatzetan nazioarteko posizionamendua lortzeko. Estrategia horretan, Gipuzkoa teknologia kuantikoen arloan lidergo-posizioa duen lurraldea da, DIPC, MPC eta Nanogune zentroen bitartez.

Horrez gain, Europako funtsekin finantzatutako I+G+Bko plan osagarrien esparruan, zientzia-, teknologia- eta berrikuntza-sistemaren gaitasunak indartzea helburu dutenak, DIPC da komunikazio kuantikoaren eremuan kokatutako jarduera-programaren buru.

(informazio+)

> Mugikortasun berriaren proiektuak: Cidetec Spartacus-en lanean, Horizon Europek finantzatuta; Mubil-en ere bai, Next-erako hautagaia dena; Gipuzkoako bi enpresek Mubil sariak jaso dituzte; eta beste batzuk, Aldundiaren laguntzak

Gipuzkoan egoitza duen Cidetec Energy Storage enpresak litiozko ioien bateriak hobetzeko lan egiten du, Alemaniako Fraunhofer zentro teknologikoak koordinatutako Spartacus proiektuan. Proiektuak Horizon Europeren finantzaketa du, EBren berrikuntza eta teknologia estrategiko eta aurreraturako esparru estrategikoarena, 2021-2027 aldirako.

Cidetec Energy Storage-ren funtzio nagusia izango da Mubil Elektromugikortasun poloan dauzkan bere instalazioetan aldez aurreko azterketan lortutako garapenak baliozkotzea, baterien testetan Europako osatuenetako bat delarik Mubil.

Ikerketa Aplikatuko Gipuzkoako zentroa bat dator 2050erako klimatikoki neutroa izango den Europa lortzeko helburuarekin.

Mubil, bestalde, Aldundiak aurkeztutako Gipuzkoako proiektu estrategikoetako bat da, Next Generation EU-ren Covid-19 osteko berreskuratze-funtsak lortzeko, eta Europako Batzordeak hala onartzearen zain da.

Irailean Mubil Mobility Awards -Mugikortasuneko Mubil sariak- banatu dira, eta Gipuzkoako 2 eragile saritu dira, besteak beste, Ecomagnet enpresa eta Proven ekimena.

Bestalde, irailean ere iragarri ziren Aldundiak mugikortasun berrirako emango zituen diru-laguntzak, « Smart Mobility Industry » programarekin; guztira, 842.809 euro eta 15 proiektu onuradun. Proiektu horietako batzuetan lan egiten duten erakundeen artean Cidetec dago, baita Ecomagnet ere, beste askorekin batera.

(informazio + - Spartacus)

(informazio + –Mubil Awards)

(informazio +– Smart Mobility Industry Laguntzak)



> Arkitekturari eta hirigintzari buruzko Europan Nazioarteko Kongresua Donostian egingo da, Arkitekturako Mugak Biurtekoaren barruan

Euskadiko Mugak Nazioarteko Arkitektura Biurtekoa urriaren 27tik azaroaren 30era bitartean egingo da hiru euskal hiriburuetan, eta, azaroaren 4an, 5ean eta 6an, Europan lehiaketaren saioen arteko foroa egingo da Donostiako Kursaalean. Bi urtean behin Europako hiri desberdin batean egiten den hitzordu ibiltaria da, eta Europako 300 arkitektura- eta hirigintza-profesional hurbilduko ditu Euskadira.

Bruselaren (Belgika) ondoren, 2017an, eta Innsbrucken (Austria) ondoren, 2019an, besteak beste, iritsiko da Europan Donostiara.

(informazio + - Europan Mugak-en)

(informazio + - Mugak)



> 2021eko Ondarearen Europako VI. Jardunaldiak: 138 ekitaldi kultura-ondareari balioa emateko, inklusibotasunari begira, Europako Kontseiluaren eta Europako Batzordearen jatorrizko ideia garatzen dutenak

2021eko Ondarearen Europako VI. Jardunaldiek, Guztion ondarea, denok parte! lelopean, irisgarritasunean eta ondarearen inklusioan jarriko dute arreta, 138 jarduerarekin Gipuzkoa osoko 31 udalerritan.

Foru Aldundiko Kulturako zuzendari Mari Jose Telleriak 70 erakundek aurten antolatutako jarduerak aurkeztu zituen.

Ekitaldien gida Gipuzkoa Kulturaren webgunean eta lurraldeko kultur etxeetan eta museoetan eskuragarri dagoen jardueren paperezko katalogo batean azalduta dago. EAEko programa guztiak https://www.europako-ondarea.eus/webgunean ere kontsultatu ahal izango dira.

Ondarearen Europako Jardunaldien helburua Europa osatzen duten eskualdeen arkitektura, arte-adierazpenak, tradizioak eta askotariko trebetasunak balioestea da.

Europako Kontseiluaren eta Europako Batzordearen ekimena da, eta foru-aldundi bakoitzak sustatzen ditu Euskadin, Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin.

Adibidez, Zumaiaren kasuan albiste izan da "munduko Ipuinak" ekimena.

(informazio +)



> Donostiako Udala Europako Batzordeak «Be Active» lelopean sustatu duen Kirolaren Europako Astean jarduerak sustatu dituzten erakundeetariko bat da

Kirolaren Europako Astea Europako Batzordearen ekimena da, Europa osoan kirola eta jarduera fisikoa sustatzeko. Kanpainaren gai nagusia #BeActive da, pertsona guztiak Aste horretan eta urte osoan aktibo egotera animatuz.

Astea dela eta, adibidez, Donostiako kiroldegiek Donostiako edozein pertsonari igerileku eta gimnasioetarako sarbide librea eman diote, eta batzuetan entrenamendurako doako plan pertsonalizatuak sustatu ziren. Era berean, hainbat jardueratako 70 saio baino gehiago planifikatu ziren.

(informazio +)



KOHESIO POLITIKA

> Foru Aldundiak ontzat jo du larrialdiei buruzko ALERT proiektua (2018-2022), Aragoi, Nafarroa eta Pirinio Atlantikoekin garatzen duena POCTEFArekin, EBren Pirinioez gaindiko programa nagusiaren laguntzarekin

Mugaz gaindiko lankidetza Europako kohesio-politikaren elementuetako bat da, eta Frantzia, Espainia eta Andorra estatuen mugako lurraldeetarako programa nagusia POCTEFA da, Pirinioetako Lan Elkartearen menpekoa. Programa eta haren erakunde kudeatzaile hori EBren eskualdeen arteko lankidetzaren esparruan sustatu ziren, eta bertan mugetako lurraldeetako gobernu-administrazioek lan egiten dute, lehen aipatutakoez gain: Gipuzkoako Foru Aldundia, gobernu autonomikoak edo Frantziako estatuko departamentuetako gobernuak, hala nola Pirinio Atlantikoetakoak, kasu honetan.

Europar Batasunaren POCTEFA programaren helburua da mugaz gaindiko eremuaren integrazio ekonomiko eta sozialari jarraipena ematea eta indartzea, lankidetzaren bidez. Helburu horrekin sustatzen eta finantzatzen dira Pirinioen bi aldeetako eta kostaldeko eragileek gauzatzen dituzten lankidetza-proiektuak, zehazki, garapen adimentsu, iraunkor eta integratzailea babesten dutenak. POCTEFAren bost ardatz estrategikoetako bat arriskuen prebentzioa eta kudeaketa da, eta esparru horretan kokatzen da, hain zuzen ere, aipatutako ALERT proiektua.

Gipuzkoak positiboki baloratzen du ALERT proiektuaren ibilbidea eta proiektuaren jarraipenaren aldeko apustua egiten du. Ekimenak mugaz gaindiko larrialdien kudeaketa indartzea du helburu. ALERT ("Mugaz Gaindiko Arriskuen aurkako Esparru Komunean Aurreratu eta Borrokatu" esannahiarekin) larrialdiaren arloan eskumena duten zerbitzuen arteko lankidetzarako ekimena da, eta horren helburua da erantzun azkar eta eraginkorra behar den kasuetan eratorritako egoerei aurre egitea. Proiektua 2018an jarri zen martxan, lau urterako, eta, horregatik, inplikatutako eragileek proiektuaren jarraipenaren aldeko apustua egin dute.

Indarrean egon den lau urte hauetan, ALERT proiektuak 3.399.274 euroko inbertsioa egin du guztira, eta Gipuzkoak % 13 ordaindu du, 453.910 euro. % 65, 295.042 euro, Europak finantzatu ditu. Gipuzkoaren kasuan, ALERTek aukera eman du Irun eta Hendaiako suhiltzaile-parkeen arteko esku-hartze komunak hobetzeko Eurohiriaren hiri-eremuan; izan ere, proiektuak barne hartzen dituen gainerako zonetan ez bezala, industria-guneen eta komunikazio-, bide- eta trenbide-azpiegitura garrantzitsuen presentzia dago eta populazio-dentsitatea handia da. Jaizkibel inguruan ere larrialdiak modu eraginkorragoan kudeatzen lagundu du.

(informazio+)



> IBILek, Estatuko aitzindaria ibilgailu elektrikoen kargan, hainbat proiektutan parte hartzen du, Eusko Jaurlaritzaren Hazitek programaren eta Eskualde Garapeneko Europako Funtsaren 2014-20 Programa Eragilearen laguntzaz

Egoitza Bizkaian duen arren, IBILek proiektu garrantzitsuak garatu ditu Gipuzkoan. 2020ko abenduan, ibilgailu elektrikoak kargatzeko estatu mailako lehen estazioa garatu eta zerbitzuan jarri zuen, energía biltegiratzea euskarri gisa barneratzen duena. Repsolen zerbitzugune batean dago, N-1 errepidean, Tolosa parean.

Aipatzekoak dira 2019an Iberiar Penintsulako ibilgailu elektrikoak ultra-azkar kargatzeko lehen puntua eta Europa hegoaldeko lehenengoetakoa. Sistema hori aurrerapen handia izan zen ibilgailu elektrikoa erabiltzeko, Irungo mugatik Madril-Frantzia lotura egiteko aukera eman baitzuen.

I+G-ari esker, teknologian eta ibilgailu elektrikoa kargatzeko zerbitzuetan liderra da, eta trantsizio energetiko garbi baten aldeko proiektu berritzaile ugariren parte da, hala nola hainbat “Hazitek proiektu” eta Europako enpresa erraldoiekin egindako lankidetzak.

Hazitek Euskadin lankidetzazko I+G finantzatzen duten programa handietako bat da, eta Eskualde Garapeneko Europako Funtsaren 2014-20 Programa Eragilean txertatuta dago; horrela, EGEFek % 50ean konfinatzen ditu bere proiektuak.

Arlo horretan, hainbat “Hazitek proiektutan” parte hartzen du. Esate baterako, eMovlab, teknologia berritzailea eta negozio berriak sortu eta garatzeko enuntziatua, euskal industria etorkizuneko mugikortasun iraunkorreko agertoki berrirako trantsizioa ahalbidetzeko, industria-gaitasun berriekin lidergoari eutsiz. Petronor buru dela, IBIL enpresarekin batera, sektorean erreferentzia diren Ingeteam edo Ekide enpresek parte hartzen dute, eta Zientzia eta Teknologiaren Euskal Sareko hainbat eragileren babesa du, hala nola Cidetec, Tecnalia edo ZIV I+G.

Hazitek programaren barruan IBILek parte hartzen duen beste proiektu bat e-WASTE da, sarbide publikoko karga elkarreragilea duen hiri-hondakinak biltzeko zerbitzu elektrifikatuaren kontzeptu berri bat sortzean zentratua. Elektromugikortasun-teknika berrien ikerketan oinarrituta dago. Horren ondorioz, kamioi hibrido berri batek algoritmo adimendunak erabiliko ditu hiriguneen barruan % 100eko funtzionamendu elektrikoa bermatzeko, eta bertan parte hartzen du Irizar bezalako enpresekin batera.

(informazio+)

> Kimuak mundu osoko multinazionalei karga handiak manipulatzeko ematen dien zerbitzuaren berrikuntzan dihardu, Eusko Jaurlaritzaren Hazitek-en eta Eskualde Garapeneko Europako Funtsaren 2014-20 Programa Eragilearen laguntzaz

Kimua Group karga handiak manipulatu, jaso eta garraiatzeko ingeniaritzan espezializatuta dago. Bere bezeroak, batez ere, honako sektore hauetakoak dira: « Wind onshore » eta « Wind offshore », trenbidekoak, instalazio zientifiko handietakoak edo siderurgiakoak. General Electric, Siemens edo Nordex bezalako multinazionalak ditu bezeroen artean, eta Alemanian, Frantzian, Estatu Batuetan eta Indian jarduten du, besteak beste. Izan ere, Kimuak jardueraren % 50 baino gehiago atzerrian egiten du.

Lizartzan (Gipuzkoa) egoitza duen enpresak hainbat zerbitzu eskaintzen ditu: makinen diseinua eta fabrikazioa, renting-a eta manipulazio eta trinkajeko prestakuntza.

Kimuaren helburuetako bat digitalizaziorantz eboluzionatzea da, eta SPRIren Hazitek programari esker, Kimua bere jarduera zerbitzatzeko eta digitalizatzeko prozesu batean sartuta egon da.

Hazitek Euskadin lankidetzazko I+G finantzatzen duten programa handietako bat da, eta Eskualde Garapeneko Europako Funtsaren 2014-20 Programa Eragilean txertatuta dago; horrela, EGEFek % 50ean konfinatzen ditu bere proiektuak.

(informazio+)

EB 2024: ESTRATEGIA

> Donostiako Ulia mendiko lore-baratzeek “berrasmatutako tokirik onenaren” saria jaso dute Europako Bauhaus Berriarengandik, Itun Berdeari lotutako eta Europako Batzordeak bultzatutako sormen-esparru handiarengandik

Gipuzkoako ekimen batek, Uliako Lore Baratzak, New European Bauhaus Saria jaso du, eta, zehazki, "Biltzeko eta partekatzeko leku berrasmatuak" kategorian izan da.

2015az geroztik, milaka boluntariok zaharberritu dute Ulia mendiaren magaleko udal-haztegi zaharra. Hiri-berroneratze eta ekintza komunitario agroekologikoko proiektutzat hartzen da.

Europako Batzordeak irailaren 16an egindako ekitaldian iragarri dira 20 sariak. « Europako Bauhaus Berriaren sariak » hamar kategoriatan banatu dira, aurrez hautatutako 60 proiektuen artean (horien artean Euskadin sortutako hainbat).

Europako Bauhaus Berriak, Von der Leyen Europako Batzordeko presidenteak 2020ko Batasunaren egoerari buruzko hitzaldian iragarritakoak, gorpuzten du EBk leku, produktu eta bizimodu iraunkorrak eta inklusiboak sortzeko asmoa. Ekimenak bizimodu berri bat sustatzen du, eta iraunkortasuna diseinuari egokitzen zaio. Horrela, gure ekonomiaren hainbat sektoretan trantsizio ekologikoa bizkortzen laguntzen da, hala nola eraikuntzan, altzarigintzan edo modan, eta gure gizarteetan, baita gure eguneroko bizitzako beste esparru batzuetan ere.

New European Bauhauseko bazkide estrategiko europarren artean, Europako Batzordeak 4 euskal erakunde hautatu ditu: Tabakalera, Conexiones Improbables, Bilbao Metropoli 30 eta "The Languages of Energy".

(informazio+)



> Aldundiak Deustuko YouCount proiektu europarrean parte hartu du beste erakunde batzuekin, ikasleen eskutik EBtik kanpo eta baztertuta geratzeko arriskuan dauden beste gazte batzuen integrazio-faktoreak ikertzeko

Irailean YouCount aurkeztu zen Orkestra Lehiakortasunerako Euskal Institutuaren eta Deustuko Gizarte Langintzaren arloaren eskutik, biek haien egoitza daukaten Donostiako campusean. Proiektuak gizarteratze-faktoreak lantzen ditu, oraingoz europar herritartasunik ez duten gazteentzat.

Proiektua Europako beste herrialde batzuekin eta zenbait erakunde bitartekarirekin koordinatzen da, horien artean Gipuzkoako Foru Aldundiarekin. Loiola Etxea eta Agintzari Zabalduz ere 10 gaztez osatutako taldeak antolatzen jardungo dira, lehen Bidaiderik Gabeko Adingabe Atzerritarrak zirenak. Ikasle ikertzaileak arituko dira talde horiekin lanean, eta Young Citizen Scientists (Zientifiko Gazteak) izena izango dute. Gazteen arteko elkarreragin hori da berrikuntza nagusia.

YouCount'en helburu orokorra ezagutza eta berrikuntza berriak sortzea da, Europa osoan baztertuta geratzeko arriskuan dauden gazteen gizarteratzea areagotzeko, gizarte-zientzia gazte eta elkar-sortzailearen bidez.

(informazio+)

> Europako Batzordeko Ingurumeneko zuzendari nagusiak eta bere Zientzia eta Ikerketako Zerbitzuak hitza hartu zuten Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatutako "Klima Aldaketa eta Trantsizio Digitala" udako ikastaroan

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Departamentuak teknologia digitalek klima-aldaketaren aurka borrokatzeko tresna gisa duten ahalmena aztertzen du. Helburu horrekin, Klima Aldaketa eta Trantsizio Digitala ikastaroan aditu eta arduradun instituzionalak bildu dira, eta beren ikuspegia azaldu dute, CO2 isurketa guztien % 15 murriztu dezaketen teknologiak behar bezala erabiltzeko.

Europako Batzordeko Ingurumeneko zuzendari nagusi Joanna Drakek parte hartu du, eta digitalizazioa ezinbesteko irakasgaitzat jo du Parisen konpromisoak azkar betetzeko eta klima-aldaketaren ondorioak geldiarazteko. Bigarren jardunaldian, besteak beste, Batzordeko Zientzia eta Ikerketa Zerbitzuko Sven Schadek hartu zuen parte.

Jose Ignacio Asensio Ingurumeneko diputatuak Gipuzkoa berotzeari aurre egiteko eta, aldi berean, trantsizio ekologikoa lurraldean aberastasuna eta enplegua sortuko duen garapen jasangarrirako aukera bihurtzeko lantzen ari den politikak azaldu ditu. Alor horretan, energia-erkidego eta -kooperatibekiko energia-trantsizioari ematen ari zaion bultzada nabarmendu du, bai eta Zubietan hidrogeno berdea ekoizten duen planta bat martxan jartzeko proiektua ere, hondakinetatik abiatuta Lurraldebusen flota elikatzeko eta, horrela, garraio publikoaren elektrifikazioan aurrera egiteko behar besteko kantitatean.

Ekonomia zirkularraren arloan, Asensiok plastikoa birziklatzen espezializatutako polo bat eta berrerabiltzeko eta birziklatzeko prestakuntza-zentro bat sortuko dituela iragarri du, hondakinetatik datozen materialak hobeto aprobetxatzeko. Proiektu horiek Gipuzkoako ekonomia berdearen zifrak bikoizteko eta 2030ean 10.000 enplegu lortzeko oinarria dira.

Europako Batzordearen Next Generation EU makroprogramaren berreskurapenerako funtsak lortzeko aurkeztutako foru-ekimenetako batzuk dira aipatutako hauek.

(informazio+)

> Donostiak 24 milioiko proiektuak planteatu ditu Next Generation EU programaren bidez finantzatzeko, mugikortasun jasangarria, turismoa, azpiegiturak edo digitalizazioa nabarmenduz, 40 proposamenen artean

Eskaera formalean, hiri-garraioa eta emisio txikiko eremuen garapena sartu dira, klima-aldaketaren aurka borrokatzen lagunduko duten beste politika batzuen artean.

Eskaera Mugikortasun eta Garraio Ministerioaren eta Industria eta Turismo Ministerioaren bidez egiten da; Donostiako Sustapena udal garapen agentziak koordinatuko du prozesua, dagozkion udal sailekin batera.

Ministerio horiek Europako Batzordeak onartutako deialdiak egiten dituzte, Next Generation EU-rako planteatzen diren trantsizio ekologiko eta digital bikoitzeko helburu handinahiekin bat etorriz. Aurrekaririk gabeko plana da, pandemiaren ondorengo susperraldia ez ezik, Europako azpiegituren eta ekonomiaren eraldaketa iraultzailea ere lortu nahi duena.

(informazio+)

> Mugikortasun Jasangarri, Osasungarri eta Seguruaren Europako Astea: Aldundiak, besteak beste, udako ikastaro bat bultzatu du, Europako Batzordeko mugikortasun-arduradun bat eta Next Generation EU plana bertan barneratuz

Rafaela Romero Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako diputatuak irailaren 16tik 22ra bitartean Mugikortasun Jasangarriaren Europako Astea dela-eta Gipuzkoarako aurreikusita dauden jardueren multzoa aurkeztu zuen prentsaurrekoan. Europa mailako ekimen bat da, garraiobide jasangarriagoak erabiltzeak dakartzan onurei buruz sentsibilizatzeko, kontinente osoko erakunde publiko eta pribatuekin batera.

Europako Batzordeak 2021eko kanpainarako aukeratu duen gaia mugikortasun jasangarria, osasungarria eta segurua da, eta bere leloa honako hau da: « Zure osasunaren alde, modu jasangarrian mugitu ». Edizio honetan, osasuna, fisikoa zein mentala, eta aukeratzen ditugun mugitzeko moduekin duen lotura jarri nahi izan dira hizpide.

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuak antolatutako ekintzen artean dago UPV/EHUren udako ikastaroa, “mugikortasun jasangarria eta mugikortasunaren jasangarritasuna”, Miramar Jauregian egin dena. Besteak beste, Peter Szatmari Europako Batzordeko Mugikortasuneko eta Garraioko Zuzendaritza Nagusiko (DG Move) politiken arduraduna izan da bertan. Romerok adierazi zuenez, “garraio publikoaren finantzaketan sakonduko da, eta Europako esparru batetik helduko zaio, arreta berezia jarriz NextGenEU fondoetan”.

Era berean, "Zure osasunaren alde mugitzen gara" lelopean, osasun-arloko profesionalei zuzendutako Mugikortasunaren Asteko ekintza bat diseinatu zen, Zumarraga, Irun, Donostia eta Eibarreko ospitaleetatik bizikleta elektrikoetan egindako irteera gidatuen eskaintza bat. Parte-hartzaileek bizikleta-ibilbide bat egin zuten, ospitale bakoitzean hasita, eta udalerri bakoitzerako bereziki diseinatutako bisita gidatu baten bidez, udalerriko hainbat gune zeharkatu zituzten. Bisita gidatuak Ondarea Interpretatzeko Europako Elkarteak (Interpret Europe) bermatutako metodologian oinarrituta diseinatu dira.

Aldundiak ikus-entzunezko lehiaketa ere planteatu zuen sare sozialetan. Mondragon Unibertsitatearekin “Gazteak mugitzen dira” antolatu zuen hain zuzen ere, 14 eta 25 urte bitarteko MUGI txartelaren erabiltzaileak mobilizatzeko.

(informazio + - ikastaroa)

(informazio + - osasun eta emakumeetazko ekintza)

(informazio + - gazteentzako ekintza)



> EIT Manufacturing-ek, Europako Teknologia Institutuaren fabrikazio dibisioak, Donostian du beren 5 egoitzetako bat, eta bertatik startupen estatu arteko lankidetzak sustatzen ditu enpresa handiekin

Irailean, EIT Manufacturing-ek startup edo enpresa berritzaile sortu berriak nazioartekotzen nola laguntzen duen jakitera eman du komunikabideetan. Egoitza guztietatik egiten du, Donostiakoa barne; azken egoitza honek Portugalen, Espainian eta Frantzian jarduten du. Ekintzailetza-dibisio bat du (Negozio Sorkuntza). Sorkuntza-programa bat sustatzen dute (Create), baina baita lehendik dauden startupak bizkortzeko beste bat ere (Accelerate). EIT Manufacturingek Alemanian, Austrian, Italian eta Suedian dituen beste egoitzekin elkar laguntzeak nazioarteko lankidetzetarako onura ekartzen die.

BoostUp! Bridge izeneko lehiaketa bat ere sortu da, non EBko estatu bateko startup batek erronka teknologiko bat konpondu behar duen beste estatu bateko enpresa handi batekin.

Donostiako egoitzak euskal enpresa handiekin lan egiten du, eta dagoeneko hainbat startup lagundu ditu 2019an gure lurraldean ezarri zenetik.

(informazio +)



> EIT Food, Teknologiaren Europako Institutuko nekazaritza eta elikagaietarako dibisioak, III. Food FUN & FAN topaketa egin zuen Donostian, sektoreko startup eta berrikuntzen inguruan, EIBko Berrikuntza Zuzendaritzaren presentziarekin

Institutuaren hegoaldeko dibisioak Euskadin du egoitza, eta horri esker, euskal erakundeak potentzial handiko sare baten gunetik gertu daude.

Ekitaldiaren izena Food (janaria), Fun (dibertsioa) eta FAN (Food Accelerator Network edo Elikagaien Sare Azeleratzailea) kontzeptuetatik dator.

Hainbat eragilerekin lankidetzan egin da; besteak beste, Deustuko Unibertsitatearekin eta haren inbertsio-sarearekin. Startup ezberdinek beren lana aurkeztu eta kontaktu sarea handitzeko aukera izan zuten.

Ekitaldian Europako Inbertsio Bankuko Berrikuntzako zuzendaria izan zen.

(informazio +)

> Good Food Instituteren urteko txostenak Donostian egoitza duen Biotech Foods nabarmendu du, hala nola Europar Batasunaren Horizon 2020 programatik lortu dituen 2,7 milioiak, “kultibatutako” haragiari buruzko Meat4All proiekturako

Biotech Foods-ek Estatuko beste 7 enpresarekin batera parte hartzen du Zientzia Ministerioak finantzatutako proiektu batean, abereetaz aparte hazitako haragiaren ikerketan aurrera egiteko. Biotech Foods-ek haragia ekoizten du proiekturako. « Industria-produkzioaren eskalatzea egiten ari gara, Europako erregulazioaren pean jarri ondoren produktua merkaturatzeko aukera emango diguten kantitateak lortzera iristeko. Gure prozesu osoak hilabete behar du. Ez dugu itxaron behar 24 hilabetera hiltzen den animalia baten hazkunde-denbora », kontatu du Iñigo Charola Biotech Foodseko CEOak.

Europar Batasunak, oraingoz, ez du kultibatutako haragia merkaturatzeko araudi espezifikorik. Hala ere, badira Europako Batzordeak merkaturatzea onartzeko bideak. Ikerketatik kontsumitzailearentzako jauzia kudeatzeko bide bat dago. Legearen arabera, elikagai berri gisa onartu behar da, 2015eko 2283 Erregelamenduaren 3. artikuluaren bidez, zelula-laboreetatik sortutako elikagaiak aurreikusten baititu.

(informazio +)

> Basque Culinary Center, 2021eko European Enterprise Promotion Awards sarietarako aurrehautatua izan da, enpresa-espiritua sustatzeko kategorian

2021ean EEPA enpresa europarra sustatzeko sarien 15. urteurrena betetzen da.

28 estatutako 200 hautagaitzek baino gehiagok parte hartu dute aurten. Gero, estatuko koordinatzaileek 47 hautatu zituzten, EEPAko Epaimahaiak ebaluatu ahal izateko. Estatuko fasean estatu bakoitzeko gehienez bi daude.

Epaimahaiak 3 ordu eman zituen enpresa txiki eta ertainei laguntzeko enpresa eredu inspiratzaileenak, berritzaileenak, sortzaileenak eta sutsuenak aukeratzen.

Azken txanda azaroaren 16an izango da, Esloveniako Portorozen, ETEen 2021eko Batzarrean (SME Assembly).

Irabazleak Europako Kapitalizazio Txiki eta Ertainerako Enpresa Sustapenerako Sarien zeremonia berezi batean iragarriko dira.

1. kategorian, enpresa-espiritua sustatzeari buruzkoan, Basque Culinary Center-en « ekintza Kulinarioa » edo « Culinary Action » proiektuak, Esloveniako « sormenerako Zentroa » eta Frantziako « gazteak kontzientziatzeko asteak » izeneko proiektuak saritzen dira.

Beste kategoria batzuek trebetasunetan inbertitzea, negozio-giroa hobetzea, trantsizio digitala, nazioartekotzea, jasangarritasuna eta gizarte-erantzukizuna eta inklusibotasuna saritzen dituzte.

Sariak aukera bat dira proiektu horiek Europan aurkezteko.

(informazio +)



ETA EUROPAR BATASUNA

> 2021ko iraila

DOKUMENTU INTERESGARRIAK

> **Eurobarometroa: EBaren etorkizunazko baikortasuna, 2009tik izan duen balio altuenetan dago**

(informazio+)

> **Eurobarometroa: EBeko hiritarrak irmoki daude zientzia eta teknologiaren alde**

(informazio+)

> **Migratzaileen trafikoaren aurkako plan berritua**

(informazio+)

> **2020ko nekazal eta elikagai merkataritzazko txostena**

(informazio+ - albistea)

(informazio+ - txostena)

> **2021eko prospektiba estrategikoaren txostena: EBren ekintzarako gaitasuna eta askatasuna hobetzea epe luzera**

(informazio+ - albistea)

(informazio+ - txostena)

> **Europako Bauhaus Berriari buruzko adierazpena: jasangarritasuna estiloari eta inklusioari lotzeko ekintza eta funts berriak**

(informazio+ - albistea)

(informazio+ - adierazpena)



EUROPAKO DEIALDIAK

> Jabetza Intelektualaren Europako Bulegoa. Jabetza intelektualaren aurrediagnostikoak ETEentzat. Markak eta diseinuak erregistratzeko tasak ordaintzeko laguntzak. GR/001/21

- 1. zerbitzua: jabetza intelektualaren aurretiko diagnostikorako zerbitzua ("IP Scan"), Europako bulego espezializatuen eskutik
- 2. zerbitzua: Estatuko, eskualdeko edo Europako erregistro-sistemek markak, marrazkiak eta ereduak babesteko oinarrizko eskaera-tasen finantzaketa.
- Aurrekontua: 20 milioi euro

(info+)

> LIFE programa – Ingurumenean, naturan, klima-ekintzan edo energia garbietan aktiboak diren irabazi-asmorik gabeko erakundeen ohiko jarduerarako diru-laguntzak. LIFE-2021-NGO-OG-SGA

- Gizarte zibilak elkarrizketa politikoan parte har dezan eta LIFE azpiprogramen helburuak aplika daitezen indartzea: naturakoak, energia garbikoak, ingurumenekoak eta klimatikoak.
- Programaren eta onuradunen arteko "funtzionamenduko" diru-laguntza horiek orokorragoak diren edo bi aldeen arteko abiaburukoak diren "esparru-akordiokoak" izenekoetatik bereizten dira.
- Aurrekontu orokorra, 12,37 milioi euro

(info+)



> 2021ko iraila

> Enplegu-zerbitzuen lankidetzarako EURES sare europarra. Mugikortasun fokalizatuaren eskema edo TMS. Betetzeko zailak diren lanpostu hutsuneak. GIZARTE-POLITIKA ESF-2021-EURES-TMS

- Enplegu-zerbitzuen lankidetzarako EURES sare europarra. Mugikortasun fokalizatuaren eskema edo TMS. Betetzeko zailak diren lanbide espezializatuen arazoari aurre egitea.
- Aurrekontua: 13,87 milioi euro

(info+)

> LIFE programa. Programaren eta ingurumenaren, naturaren, klima-ekintzaren edo energia garbien arloan aktiboak diren irabazi-asmorik gabeko erakundeen arteko esparru-akordiorako diru-laguntzak. LIFE-2021-NGO-OG-FPA

- Gizarte zibilak elkarrizketa politikoan parte har dezan eta bere LIFE programak aplika daitezen indartzea: naturakoak, energia garbikoak, ingurumenekoak eta klimatikoak.
- Programaren eta onuradunen arteko "esparru-akordiotik eratorritako" diru-laguntza horiek bi aldeen arteko "funtzionamenduko" diru-laguntza gehigarrietatik bereizten dira.
- Aurrekontua: 37,11 milioi euro

(info+)

> Creative Europe – Europako literatura-lanen, estatuaz gaindiko proiekzio handiagoa lortzeko laguntzak, hizkuntza gutxituak barne. CREA-CULT-2021-LIT KULTURA

- Ekintza honek fikziozko lanak itzuli, argitaratu, banatu eta sustatuko dituzten proiektuak lagunduko ditu. Obren estatuaz haraindiko proiekzioa. Aniztasuna eta hizkuntza gutxituei laguntzea.
- Aurrekontua: 5 milioi euro

(info+)



> Enplegu-zerbitzuen lankidetzarako EURES sare europarra. Laguntzak sareko erakundeen arteko mugaz gaindiko elkarteentzat, langileen mugikortasunari eta gizarte-solaskideei dagokienez lankidetzan aritzeko. GIZARTE-POLITIKA ESF-2021-EURES-CBC

- 3 laguntza-adar ditu: oro har,
- erakundeen arteko elkarteentzat,
- EBtik kanpoko Europako zenbait herrialderekin jarduerak egiteko
- eta gizarte-solaskideen lankidetzarako (sindikatuak eta abar).
- Aurrekontua: 10,6 milioi euro

(info+)

> Europako Gizarte Funtsa. Urteko funtzionamendurako diru-laguntzak (2022rako), gizarte-enpresen finantza-laguntzako eta mikrofinantzaketako erakundeen sareei laguntzeko. GIZARTE-POLITIKA ESF-2021-OG-NETW-NGO-SGA

- Erakundeen jarduera indartzea, jardunbide egokiak trukatzea, sentsibilizazioa.
- Komunikazioa hobetzea enpresa eta mikroenpresa sozialekin eta horiei laguntzeko beste erakunde batzuekin.
- Arlo horri buruzko informazioa garatzea eta kudeatzea.
- Aurrekontua: 11,5 milioi euro

(info+)

> Hiritarrak, Berdintasuna, Eskubideak eta Baloreak (CERV) Programa. 2022ko urteko diru-laguntza Eragileak, desgaitasuna duten pertsonen eskubideen arloan aktibo dauden EBko sareei laguntzeko. CERV-2021-DISA-OG-SGA

- Gizarte-eskubideen Europako zutabearen 17. printzipioaren aplikazioa,
- desgaitasunen bat duten pertsonen eskubideetarako 2021-2030 Europako Estrategia
- eta desgaitasunen bat duten pertsonen eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioa garatzea.
- Aurrekontua: 5,8 milioi euro

(info+)

"EUROPAKO FUNTSAK GIPUZKOAN" webgunea